



## Euskal Autonomia Erkidegoan emakume baten hilketara dela-eta egindako Erakunde-adierazpena

Lasarte-Oriako Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du Euskal Herrian berriki gertatutako erailketa sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die emakumearen ingurukoei.

Lasarte-Oriako Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketa pairatzen duten emakumeen arazoa, baizik emakume guztiena.

Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakakoak ditu beti, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta mendean izan nahi dituen ideologia. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza. Aitzitik, generoen gaineko aurreiritziak, gizartean aski errotuta dauden horiek dira, hain zuzen, halako ondorio larri eta tamalgarrien sortzaile. Emakumeak desberdintasun eta menpekotasun materialeko egoera batera, bizitza prekario batera behartzen ditu gizartearen antolamenduak. Ez ditu herritar osotzat hartzen, gizonezkoen maila berean, eta ez die aukerarik ematen oinarritzko eskubideen jabe izateko.

Lasarte-Oriako Udalak ardura osoa du udalerrian bizi garen pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzeko. Beraz, ez du atsedunik hartuko ahalegin honetan, gure bizikidetzara demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago guztion artean. Langintza horren barruan, ezinbestekoa da adierazpide egokiak eskaintzea Udalerriaren izenako herritarrei, oro har, emakumeen aurkako eraso guztiak irmotasunez gaitzetsi ditzaten. Erasoa jasan duten emakumeek guztion laguntasuna sentitu behar dute, ikusi behar dute guztion erantzukizuna eta ardura dela haiei laguntzea, eta erasotzaileei argi eta garbi azaltzea guztion artean mugatu egingo dugula beldurra hedatzeko estrategia zital horren ahalmena, emakumeei erantzun-tresna egokiak emanez, eta gizon erasotzaileei, berriz, ekintza makur horien ondorioak ordainaraziz.

Horrenbestez, Lasarte Oriako Udalak babesa emate die mugimendu feministak egindako gaitzespen ekitaldiei eta era berean, dei egiten die herritar guztiei ekitaldi horietan parte hartzera, indarkeria sexistaren aurka agertzea eta indarkeria horren biktimei bakarrik ez daudela adieraztea.